



EPAILEENTZAKO AHOLKU BATZUK

1. ARAUAK IKASI ETA GARBI EDUKI.

- a. Jokalari kopurua, aldaketak, jokoz kanpo, etab.
- b. Dituzuen zalantzak argitu, eta ez dakizuena galdetu.

2. MUGITU BALOIAREKIN BATERA, BETI BALOITIK GERTU.

- c. Ez ezkutatu.
- d. Korrika egin behar bada, korrika.
- e. Ez mugitzeak inplikazio edo interes falta adierazi dezake.
- f. Ez eman bizkarra baloiari.

3. TXILIBITUARI GOGOR ERAGIN, ONDO ENTZUN DADILA.

- g. Ez bada entzuten, gaizki ulertuak eta polemikak sor daitezke.
- h. Gorputz-jarrera zaindu: keinuekin lagundu.
- i. Lehenbailehen erabaki, ez itxaron gehiegi, gaizki ulertuak ekiditeko.

4. UMEEI ERAKUSTEN SAIATU.

- j. Epailea izateaz gain, eredu izan gaitezke. Dakizuena eta bestelako aholkuak umeei transmititu (adib: ateko sakeak, alboko sakeak, erdiko sakeak, etab.).
- k. Umeek eskertu egingo dute eta "kanpoko" jendeak (gurasoak) ere bai.

5. JOKALDI POLEMIKOAK

- k. Ez bazaudete ziur, umeei galdetu.
- l. Ez baduzue ikusi ESAN eta KEINUAK EGIN ez duzuela ikusi (behatza begira eraman eta buruarekin ezetz egin), eta JARRAITZEKO agindua eman.
- m. Denok dugu hanka sartzeko ESKUBIDEA. Hala ere, ez legoke gaizki hanka sartuz gero, BARKAMENA eskatzea eta AURRERA jarraitzea.

6. TENTSIO EGOERAK

- n. Saiatu LASAITASUNA eta ERRESPETUA mantentzen (arnasa sakon hartu).
- o. LAGUNTZA behar baduzu, ESKATU (pertsona heldu bati, hobe).
- p. Egoera jasanezina bada, partidua BERTAN BEHERA utzi eta ALDE EGIN.
- q. Gertatutakoaren BERRI EMAN arduradunei.